

# Gaindegiaren argitalpen katalogoa

# Txostenak



## Euskal Herriko lurralde antolamendua

Txosten honetan Gaindegiako bazkideen gogoetak eta hausnarketak jasotzen dira lurralde antolamenduaren inguruan, eta bide batez, Gaindegiak gai honen inguruan adostutako printzipioak zehazten dira.



## Euskal Herriko demografia eta ugalkortasuna

Euskal Herriko ugalkortasunaren afera, honen bilakaera eta egun dauden joerek ekarriko dituzten aldaketen azterketa jasotzen du lan honek. Lan hau, UPV-EHUko Soziologia I sailak eta Gaindegiak elkarlanean egindako jardunaldiaren emaitza da.



## Adierazle ekonomiko eta sozial nagusiak 0.1

Gaindegiako ekonomilari talde batek zenbait makroadierazle kalkulatzeko lana egin du. Lan honek Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoaren indize nagusiak ezagutzeko modua ematen du.



## Baiona-Donostia euskal euro hiria eta bere eragin eremuko gazteen txertatzea Iparraldeko lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea

Iparraldean milaka gazte joaten dira urtero Euskal Herritik kanpora ikasi nahiz lan egitera Iparraldeko lanpostu asko bete gabe gelditzen diren arren. Joandako gazte hauetatik ez dakigu zeintzuk bueltatzen diren sorterrira. Gaindegiak eta Hemen elkarteak egin ikerketak migrazio mugimendu horren arrazoiak aztertzen ditu.




## Situación económica de ipar Euskal Herria, en cifras

Txosten honetan Iparraldeko hainbat adierazle soziodemografiko eta sozio-ekonomikoak biltzen dira. Hasi lurraldearen ezaugarri fisikoetatik bertako etxebizitza bilakaeraraino.



## Ipar Euskal Herriko adierazleak Euskal Herriko ingurunean

Gaindegiak Hemen elkartearen eskariz egindako lana da honakoa. Lan honek Iparraldeko demografia, familia-egitura eta sektore ekonomikoen azterketa egiten du.




## Bizkaiaren egoera Euskal Herriaren eta Europar Batasunaren aldean. Hurbilpen bat egiturako adierazleen bitartez

EUROSTAT-ek *Egiturako adierazleak* deitutako adierazle zerrenda definitu zuen Europako Batasuneko herrialdeen ekonomia lehiakorra eta dinamikoa bultzatzeko. Gaindegiak EUROSTAT-ek ezarritako metodologiari jarraituz, gure herriko errealitateari ahalik eta gehien hurbiltzeko lehen lana da.

# Liburuak



### Euskal Herria, Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Euskal Herriak, Europako Batasunean, garapen iraunkorreko unitatea izateko aukera du bai bere ezaugarri fisikoengatik nahiz sozialengatik. Euskal Herriak ezinbesteko du, beraz, lurralde estrategia jakin bat izatea arlo ekonomiko zein sozial guztiak garatuko dituena herri ikuspegiz.

www.gaindegia.org



### Euskal Herriko lurralde antolamendua. Gogoetak eta argibideak

Zatiketak eta administrazioen sakabanaketak Euskal Herriko garapen eta kohesiorako oztopo izan daitezkeela badirudi ere funtsezkoa da Euskal Herriko bizi-raupena eta iraunkortasuna eman dadin, lurralde antolamenduaz gogoeta egitea. Honats saiakera bat.

www.gaindegia.org



### Euskal Herriko laborantza, datuak eta iritziak

Liburuxka honetan bi lan biltzen dira, alde batetik laborantzako zentsuen bateratzetik eratorritako emaitza nagusiak eta bestetik laborantzaren etorkizunari buruz adituengandik jasotako iritzien sintesi lana.

www.gaindegia.org



### Egitura adierazleak, Bizkaiaren egoera Euskal Herriaren eta Europar batasunaren aldean. Laburpena

Egitura adierazleak, Europako Batzordeak eta Kontseiluak erabakitako aldagai estatistiko batzuk dira. Lan honetan, Euskal Herri mailako adierazleak jasotzen dira EBko erregioek lortutako aurrerapenekin neurtu ahal izateko.

www.gaindegia.org




## Euskal Herria datuen talaiatik 2006

Egilea: Aztiker. Gaindegia laguntzailea.

Euskal Herri osoa aintzat hartzen duen lan estatistiko osatu eta landuena. Lan-tresna honek Euskal Herriaren alor desberdinetako (lurraldea eta biztanleak, demografia, ekonomia eta jendartea eta euskara eta hezkuntza) erradiografia eguneratua eta gardena erakusten digu.

www.gaindegia.org




## Euskal Herria Eskualdeka

Argitaratzailea: Ipar Hegoa. Gaindegia laguntzailea.

Eskualdeak Euskal Herriko lurralde antolamendurako ezinbesteko unitateak dira. Unitate hauek, berriz, oinarrizkoak Europako Batasuneko testuinguruan zein Euskal Herriko ekonomiaren garapenean. Argitalpen honetan, 47 eskualderen jarduera ekonomiko nagusien azterketa orokor bat egiten da.

www.gaindegia.org

# Web guneak



## www.gaindegia.org

Gaindegiak sortzen duen dokumentazio guztia eskura. Web gunean biltzen dira Gaindegiak kaleratutako txostenak, dosierrak, artikuluak, liburuak... Euskal Herriaren errealitate ekonomiko eta soziala ezagutzeko tresna eta baliabide aproposa.



## www.datutalaia.net

Euskal Herri osoko datu estatistikoak biltzen dituen datu-biltokia. Datuak herrialdeka, eskualdeka eta udalerrika eskaintzen ditu. Egun jorratzen dituen gaiak ondokoak dira: demografia, gizartea, laborantza eta euskara eta hezkuntza.